

**Gradua: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza**

**2013-2014 Ikasturtea**

# ESPAINIAKO EKONOMIARAKO ESKARI SISTEMA BATEN ESTIMAZIOA

---

Fruten kasua

**Edurne Rodríguez Ordóñez**

2014/06/17

## AURKIBIDEA

LABURPENA .....	3
1. SARRERA.....	4
2. EREDU TEORIKO.....	5
2.1. Kontsumitzailearen jokabidea.....	5
3. ESTIMAZIO EREDUAK.....	11
3.1. Teoria mikroekonomikoetan oinarrituriko ekuazio-sistemak.....	11
3.2. “Ad-hoc” motatako ekuazio-sistemak.....	11
4. DATUEN DESKRIBAPENA .....	13
5. ESTIMAZIOEN EMAITZAK .....	19
5.1. Estimaturiko eredu lineala (1 eredu).....	20
5.2. Estimaturiko eredu logaritmikoa (2 eredu).....	23
5.3. Forma funtzional ezberdinen kontrasteak.....	26
5.4. Elastikotasunen analisia .....	26
6. ONDORIOAK.....	30
ERANSKINA .....	32
BIBLIOGRAFIA.....	45

## LABURPENA

Lan honen helburua, Espainiako ekonomiarako fruten eskari sistema estimatzea da. Horretarako, ustez fruten kontsumoan eragina duten aldagaien aukeraketa egin da, zehazki familien ezaugarriei lotutakoak (adina, ikasketa maila, familiaren indibiduo kopurua adin ezberdineko, bizilekua eta nazionalitatea) eta merkatuari lotutakoak (fruten prezioa eta gastua). Bestelako emaitzen artean, faktore ekonomikoak fruten kontsumoan eragin nabarmena dute, familien bizilekua eta kide kopuruarekin batera. Gainera, fruta mota bakoitzarentzat kontsumo ohitura ezberdinak daude, batzuk elkarrekin kontsumitzen dira eta beste batzuk ordeztzen joaten baitira.

**Hitz-gakoak:** *Eskari sistema, Prezio eta gastu elastikotasunak, aurrekontua bi etapetan.*

---

El objetivo de este trabajo es estimar un sistema de demanda de las frutas para la economía española. Para ello, se han elegido variables que creemos que puede influir en la toma de decisiones de consumo de la fruta; por un lado se han elegido diferentes variables que caracterizan las familias (edad, nivel de estudios, número de miembros en la familia por edades, lugar de residencia, y nacionalidad) y por otro lado variables relacionadas con el mercado (precio y gasto en frutas). Entre los resultados, cabe destacar que los factores económicos influyen notoriamente, junto con el lugar de residencia y al número de miembros de las familias. Además se observa que existen diferentes hábitos de consumo según la fruta que analicemos, unas se consumen conjuntamente y otras se van alternando.

**Palabras clave:** *sistema de demanda, Elasticidades precio y gasto, Presupuesto en dos etapas.*

---

The objective of this project is to estimate a fruit demand system for the Spanish economy. For doing that, we have chosen variables that we think that influence in fruit consumption decision. On the one hand, we have chosen different variables that describe the families (age, education level, number of family members by age, place of residence and nationality), on the other hand, variables related to the market side (fruits prices and spending). Our results suggest that there are different consumption habits depending on the fruits we are analyzing, some are consumed jointly and others are substitutes.

**Key words:** *Demand system, Price and expense elasticities, Two-stage budgeting.*

## 1. SARRERA

Espainiako gizartearen kezka handienetarikoa bat osasuna da, horretarako familiek bere sorreratik bizi ohitura egokiak ezarri izan ditu, txikienek osasunez betetako bizitza izan dezaten. Gaur egungo bizitza estiloa dela eta, elikadura ohiturak aldatu egin dira gazteen artean batez ere, ondorioz obesitate kasu larri ugari agerian utziz. Honen aurrean, Osasun Ministerioak hainbat programa bideratu ditu dieta osasuntsua bultzatzuz, honen barruan frutaren kontsumoaren garrantzia azpimarratuz. Azken urteko datuei erreparatuz, fruten kontsumoa 2012an %2,29 igo egin da 2011ko datuekin konparatuz, zehazki 2012an 103,78kg/pertsonako iritsiz (2011an 101,46kg/pertsonako) eta elikagaien erosketari bideraturiko aurrekontutik frutek %9,19a gaindituz. (*Iturria: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa*)

Dieta osasuntsuak elikagaien eskarian duen eragina hainbat ekonomialariren kezka izan da azken urteetan. Horrela osasuna kontuan hartzen duen ikerketa batean, *Angul et al., (2008)* Espainiako elikagaien kontsumoan eragiten duten aldagaien analisia egiten dute, osasuntsuagoak diren produktuetara aurrekontuaren portzentaje handiagoa bideratzen delarik. Bestetik, beharrezko elikagaien eskaria nolakoa den ikertu duten hainbat adibide ditugu, hala nola; arrain eta haragirako (*Lambert et al, 2006 eta Kumar et al, 2005*); esnekientzako (*Davis et al, 2011*); arrozerako (*Bakshoodeh, 2010*); koipeentzako (*Yen et al, 2002*), besteak beste. Osasunarekin loturik ere, honentzat kaltegarria diren eta kezka diren alkohol eta tabako kontsumoari buruzko beste hainbat lan daude ere, (*Gil eta Molina, 2009, Urzúa, 2000*).

Kontsumitzailearen jokabidearen ikuspuntutik, lan honetan Espainiako fruten eskari sistema estimatuko da, familien erosketak erabakian eragina duten faktoreak ezagutu nahian. Horretarako, 2012an Espainiako 21.808 familiei egindako Aurrekontu Inkestako datuak erabiliko dira, ustez eragina duten aldagaiak aukeratuz. Estimazioak egiteko bi forma funtzional ezberdineko ekuazio sistemak planteatuko dira, azkenean fruten eskarira hoberen egokitzen dena aukeratuz. Fruten eskaria osatuko duten aldagaiak, lagin bezala erabili diren familien ezaugarrietan oinarrituko dira batez ere, hala nola, adina, ikasketa maila, familiaren indibiduo kopurua, bizilekua eta nazionalitatea. Bestetik, ohiko aldagaiak barneratuko dira, fruta mota ezberdinen prezioa eta gastua.

Ondasun ezberdinen prezio eta errenta aldaketen eragina aztertzeke neurri erabiliena elastizitatea da. Aldagai hauen eragina nahiz ondasun ezberdinen artean egon daitekeen erlazioa gai aberasgarria izan da ekonomialarien artean, beraien ikerketen helburua izanik begiratu *Menezes et al, 2008 edo Kumar et al, 2011*, besteak beste.

Lanak ondorengo egitura jarraitzen du: lehenik 2.atalean, kontsumitzailearen eredu teorikoa aurkezten da, ondoren kasu enpirikoan aplikatuko delarik. Jarraian 3.atalean, eskari funtzioak estimatzeko bide ezberdinak eta forma funtzional posibleak planteatzen dira. Kasu praktikoarekin jarraituz 4.atalean, estimaziorako erabiliko diren datuen aurretiazko analisia egingo da, lagin bezala erabili diren datuen deskribapena

eginez. Ondoren 5.atalean, eskuragarri diren datuekin estimazioak egin eta bertatik lortutako emaitzen balorazioa egingo da, aldagai esanguratsuak identifikatuz eta elastikotasunen analisia burutuz. Azkenik 6.atalean, fruten eskariaren balorazio orokorra egingo da.

## 2. EREDU TEORIKO

### 2.1. Kontsumitzailearen jokabidea

Familia ezberdinen kontsumo gastua aztertzeko **Kontsumitzaileen jokabidearen teoria**n oinarrituko gara. Mikroekonomian oinarritzen den teoria honek, kontsumitzaileak ongizaterik handiena lortzeko helburuarekin, bere errenta nola banatzen duten ondasun eta zerbitzu ezberdinak erosteko azaltzen du.

#### a) **Lehentasanak**

Lehenik, ondasun ezberdinen artean hautapena egiteko kontsumitzaileek lehentasanak izaten dituzte, produktu multzo batzuk besteak baino nahiago dituzte, edo bat edo bestea aukeratzea berdina zaie. Horrela, bi kontsumo otarre  $x = (x_1, \dots, x_n)$  eta  $y = (y_1, \dots, y_n)$  konparatzen baditugu, hertsiki nahiago badugu  $x < y$ , ez bazaigu axola aukeratzea  $x \sim y$ , eta otarre bat ahulki nahiago badugu  $x \succeq y$  adieraziko da. Ekonomistek lehentasaneko erlazioen inguruko suposizio batzuk egiten dituzte (*Varian, 2010*):

- Osotasuna: kontsumitzaileak merkatu-otarre guztiak konparatzen ditu eta ordenatzen ditu preferentzien arabera, hau da edozein  $x$  otarre eta  $y$  otarre harturik  $x \succeq y$  edo  $y \succeq x$  edo biak batera betetzea gerta daiteke.
- Iragankortasuna: merkatu-otarren ordena koherentea mantentzen da, hau da hiru otarre ezberdin baditugu,  $x$ ,  $y$  eta  $z$ ,  $x \succeq y$  baldin bada eta  $y \succeq z$  bada,  $x \succeq z$  dela joko dugu.
- Bihurkaria: edozein otarre gutxienez bere burua bezain ona izango da,  $x \succeq x$ .

Kontsumitzaileen lehentasanak **indiferentzia-kurbak** erabiliz grafikoki adieraztea posible da mapa bat osatuz. Indiferentzia-kurba baten zehar, kontsumitzaileari aletasun maila berdina ematen dioten merkatu otarren konbinazio guztiak bilduko dira. Lehentasan kurbek ondorengo propietateak dituzte (*Varian, 2010*):

- Kurbak ezin dira gurutzatu.
- Edozein konbinaketa puntutik indiferentzia kurba bat pasatzen da.
- Jatorritik urrutien dagoen kurbak baliagarritasun handiagoa izango du, hortaz nahiago izango da.
- Malda negatiboa dute eta ganbilak dira jatorriarekiko

Lehentasunei buruzko suposizioak erabat betetzen dira indiferentzia kurba erregularretan, baina ez-ohiko kasuak eman daitezke ere. Adibidez, ondasunak

**ordezkagarri perfektuak** badira, hau da, kontsumitzaileak ondasun bat beste batengatik tasa konstante batean ordezteko prest badago, kurben forma lerro zuzen beharokorrak izango dira. **Osagarri perfektuak** badira aldiz, bi ondasunak proportzioa finkoan kontsumitzen dira, beraien indiferentzia-kurbek angelu zuzenaren forma dutelarik. Ordezte erlazio marginalak (OEM) indiferentzia kurben malda puntu zehatz batean nolakoa den adierazten digu, hau da, baliagarritasun maila berdinerako ondasun batek bestea zein erlaziotan ordeztuko duen:

$$|OEM| = \left| \frac{dy}{dx} \right| ,$$

Ordezkarri perfektuen kasuan, OEM konstantea da indiferentzia kurbaren puntu guztietan, eta osagarri perfektuen kasuan aldiz, infinitua da.

Orain arte azaldu bezala, lehentasunen bitartez merkatu otarre bat bestea baino nahiagoa dela adierazi daiteke, baina ez da posible izan zenbat nahiago den adieraztea. Horretarako, baliagarritasunak kontsumo-otarre posible guztiei zenbaki bat emateko aukera ematen digu. Lehentasun kurbak oinarritzat harturik, baliagarritasun funtzioa eraiki daiteke: jatorri koordenatutik diagonal bat eraikitzen da eta honek lehentasun kurbak banan-banan ebakitzen ditu, horrela ebaki-puntu maila bakoitzari baliagarritasun balio bat emango dio. Baliagarritasun funtzioak zenbaki handiagoa emango dio nahiago diren kontsumo otarrei nahiago ez diren kontsumo otarrei baino. Hau da,  $x > y$  izango da, baldin eta soilik  $B(x) > B(y)$  bada eta  $x \sim y$  baldin bada  $B(x) = B(y)$  izango da, non  $B(x)$  baliagarritasuna den.

#### b) Aurrekontu murriztapenak

Kontsumitzaileen errenta mugatua denez beraien aukerak murriztuko ditu, beraz  $n$ -ondasunen artean aukeratzeko errenta finko bat izango du:

$$\sum_{i=1}^n x_i p_i = I,$$

non  $x_i$ ,  $i$ -famiak aukeratuko duen merkatu otarra adierazten du,  $p_i$   $i$ -ondasun ezberdinentzako prezioa da, eta  $I$  familien errenta den.

#### c) Hautapena

Lehentasunak eta aurrekontu murriztapenak ezagututa, kontsumitzailearen erosketa erabakia jakin daiteke. Kontsumitzaile erabakiak era arrazionalen hartzen dituela pentsatzea beharrezkoa da, hau da, erabil dezakeen aurrekontu mugatuaren arabera, ondasunen bidez asetasun maximizatu nahi dutela.

Kontsumitzailearen baliagarritasunaren maximizazioa gertatzeko bi baldintza aldi berean betetzea beharrezkoa da. Alde batetik, aukeratutakoa den merkatu otarra aurrekontu zuzenean egon behar da, hau da, kontsumitzaileak duen errenta guztia gastatzea beharrezkoa da. Bestetik, kontsumitzaileari gehien asetzen dion ondasunen konbinaketa eman behar da.

Formalki esan dezakegu:

$$\text{Max } B(x_1, \dots, x_n)$$


$$\sum_{i=1}^n x_i p_i \leq I \quad \text{baitan, non } x_i \geq 0 \quad \forall i = 1, \dots, n$$

Bi ondasunen kasu partikularra aztertzen badugu, Grafikoa 1 an ikusi daitekeen bezala kontsumitzaileak  $x_1$  eta  $x_2$  ondasunen artean lehentasun ezberdinak ditu, non hauek hiru indiferentzia kurben bitartez irudikatu dira. Horietako bakoitzak baliagarritasun zenbaki baten bitartez kuantifikatu daiteke, horrela, jatorritik hurbilen dagoen baliagarritasun funtzioa,  $B_1$ , asetasun maila gutxiena izango du eta  $B_3$  ordea handiena. Beste alde batetik, aurrekontu murriztapena bi ondasunentzat lerro zuzen baten bitartez irudika daiteke errenta maila bakoitzerako. Azterketarekin jarraituz, asetasuna maximizatzen duen otarreak aurrekontu-zuzena ukitzen duen indiferentzia kurba altuenean egon behar denez, A otarrea izango da kontsumitzailearen aukerarik hoberena. Puntu horretan, aurrekontu zuzenaren malda eta indiferentzia kurbaren maldak berdinak dira, hau da, tangentzia puntuaren aurkitzen da.

Baliagarritasun marjinalak (BM) ondasun jakin baten unitate gehigarri bat kontsumituz lortzen den asetasun gehigarria izanik, esan dezakegu ordezte erlazio marjinala bi ondasunen baliagarritasun marjinalaren erlazioa dela. Are gehiago, kontsumitzaileek asetasuna maximizatzen dutenean, OEM bi ondasunen prezioen arteko erlazioa da, beraz ondorengo esan dezakegu:

$$\frac{BM_1}{BM_2} = \frac{P_1}{P_2}$$

**-Grafikoa 1- Kontsumitzaileen asetasunaren maximizazioa**



**d) Eskari-funtzioa**

Baliagarritasun funtzioaren maximizaziotik **eskariaren funtzioa** lortu daiteke. Eskari funtzioak, kontsumitzaileak ondasun baten zer kantitate erosteko prest dauden, prezioa eta errenta aldatzean azaltzen digu. Matematikoki azaldu genezake:

$$x = x(p, I),$$

Ondoren baligarritasun funtziotik eskari funtzioa nola lortu daitekeen bi adibide aurkezten dira:

- (1) Demagun, *Cobb-Douglas* motatako baliagarritasun funtzioa maximizatzen dugula aurrekontu murriztapenaren mende, hau da:

$$\text{Max } \mathbf{B}(\mathbf{x}) = x_1^{\alpha_1} x_2^{\alpha_2} \dots x_n^{\alpha_n}, \quad \text{non } \alpha_i > 0$$

$$\sum_{i=1}^n p_i x_i = \mathbf{I} \text{ baitan,}$$

ondorengo eskari funtzioa frogatu daiteke:

$$x_i = \frac{\alpha_i}{\sum_{i=1}^n \alpha_i} \frac{\mathbf{I}}{p_i},$$

- (2) Demagun bestelako *Stone-Geary* baliagarritasun funtzioa dugula, honen maximizazioaren bitartez eta aurrekontu murriztapena kontuan hartuz ondorengo eskari funtzioa lortzen da:

$$\text{Max } \mathbf{B}(\mathbf{x}) = (x_1 - \gamma_1)^{\alpha_1} (x_2 - \gamma_2)^{\alpha_2} \dots (x_n - \gamma_n)^{\alpha_n}, \quad \text{non } (x_i - \gamma_i) > 0$$

$$\sum_{i=1}^n p_i x_i = \mathbf{I} \text{ baitan,}$$

ondorengo eskari funtzioa frogatu daiteke:

$$x_i = \gamma_i + \frac{\alpha_i}{\sum_{i=1}^n \alpha_i} \frac{1}{p_i} \left[ \mathbf{I} - \sum_{i=1}^n p_i \gamma_i \right],$$

#### e) Errentaren aldakuntza

Aurretiaz ikusi bezala, eskari-kurba errenta eta prezioaren menpe dago. Errenta mailaren aldakuntza sortzean merkatu-prezioa konstante mantenduz, eskatutako kantitatea aldatu egingo litzateke.

Errentaren aldakuntzak eskarian duen eragina neurtzeko **errenta-elastikotasuna** erabiltzen da. Errenta-elastikotasunak, kontsumitzaileen errenta %1 handitzean ondasun batetatik eskatutako kantitateak izaten duen aldakuntza ehunekotan adierazten du:

$$\mathcal{E}_I = \frac{\partial x}{\partial I} \times \frac{I}{x},$$

Errenta-elastikotasuna positiboa denean kontsumitzaileen errenta handitzean ondasun horren kantitate handiagoa nahi dute, ondasuna **normala** delarik. Elastikotasuna positiboaz gain, bat baino handiagoa bada ondasuna **luxuzkoa** dela kontsideratzen da, eta elastikotasuna (0,1) bitartean dagoenean **beharrezko** ondasuna. Errenta-elastikotasuna negatiboa denean, aldiz, eskatutako kantitatea jaitسي egingo da errenta handitzean, orduan ondasuna **behe mailakoa** delarik.

#### f) Prezioaren aldakuntza

Prezioaren aldakuntzek eskarian duen eragina neurtzeko **prezio-elastikotasuna** erabiltzen da. Prezio-elastikotasunak ondasunaren prezioa %1 handitzean ondasun



batetatik eskatutako kantitateak izaten duen aldakuntza ehunekotan adierazten du, hau da:

$$\mathcal{E}_p = \frac{\partial x}{\partial p} \times \frac{p}{x},$$

$\mathcal{E}_p$ -ren zenbatekoa balio absolutuan 1 baino txikiagoa bada eskaria **inelastikoa** izango da, prezioaren aldakuntzek eragin txikia dutelarik eskatutako kantitatean.  $\mathcal{E}_p$ -ren zenbatekoa 1 baino handiagoa denean, berriz, eskaria **elastikoa** izango da, hau da, produktuaren eskatutako kantitatea jaitsi egiten da prezioak gora egiten duena ehuneko handiago batean.

Era berean,  $\mathcal{E}_p$ -aren zenbatekoa negatiboa denean, ondasunaren prezioaren jaitsierak ondasun horretatik kantitate gehiago kontsumitzea ekarriko du, kasu horretan, ondasuna **arrunta** izango litzateke.  $\mathcal{E}_p$ -aren zenbateko positiboa balitz aldiz, ondasunaren prezioa jaistean ondasun horretatik gutxiago kontsumituko balitz, ondasuna **Giffen** motatakoa izango litzateke.

Azkenik, elkarren artean erlazionatutako ondasunen prezioen aldakuntzek ere eragiten diote eskariari, eragin hori neurtzeko **elastikotasun gurutzatua** erabiltzen da. Honek, ondasun baten prezioa %1 aldatzean zer nolako eragina duen beste ondasun baten eskatutako kantitatean adieraziko du:

$$\mathcal{E}_{xy} = \frac{\partial x}{\partial y} \times \frac{y}{x},$$

Beraz, elastikotasun gurutzatuaren bidez bi ondasunen arteko erlazioa ezagutuko da. Horrela, elastikotasuna negatiboa bada ondasunak **osagarriak** dira, hau da, ondasunak batera kontsumitzeko joera dagoenez bataren prezioa igotzean bestearen kontsumoa jaitsiko da. Bestetik, elastikotasun gurutzatua positiboa bada ondasunak **ordezkagarriak** dira, hau da, bi ondasunak batera lehiatzen direnez ondasun baten prezio igoerak beste ondasunaren kontsumoa igoaraziko du. Azkenik, elastikotasuna 0 bada, ondasunak **independenteak** dira, hau da, bi ondasunen artean ez dago inolako kontsumo loturarik.

### g) Slutsky ekuazioa

Ondasun baten prezioa aldatzen denean, bi eragin edo ondorio ikusi ditzakegu: batetik, ondasun bat bestearekin zein erlaziotan elkartruka daitekeen aldatzen da; eta bestetik, errentaren erosteko ahalmen osoa ere aldatzen da.

**Slutsky ekuazioak**, prezioen aldakuntzen eraginez eskariak jasotzen dituen aldaketak, bi efektuen ondoriozkoak direla frogatzen ditu (*Varian,1992*):

$$\frac{\partial x_i}{\partial p_j} = \frac{\partial x_i^B}{\partial p_j} - x_j \frac{\partial x_i}{\partial I},$$

Alde batetik, **ordezkapen efektua**  $(\frac{\partial x_i^B}{\partial p_j})$  dago, non baliagarritasun maila berdinerako eskatutako kantidadean ematen den aldakuntza den. Bestetik, **errenta efektuak**  $(-x_j \frac{\partial x_i}{\partial I})$  erosteko ahalmena aldatzean eskatutako kantidadean dagoen aldakuntza adierazten du prezioa konstante mantenduz.

Prezioaren aldakuntzaren ondorioz sortzen den ordezkapen efektua n-ondasunentzat ondorengo Slutsky terminoetako matrizean adieraz daiteke:

$$\begin{bmatrix} \frac{\partial x_1^B}{\partial p_1} & \frac{\partial x_2^B}{\partial p_1} & \dots & \frac{\partial x_n^B}{\partial p_1} \\ \frac{\partial x_1^B}{\partial p_2} & \frac{\partial x_2^B}{\partial p_2} & \dots & \frac{\partial x_n^B}{\partial p_2} \\ \dots & \dots & \dots & \dots \\ \frac{\partial x_1^B}{\partial p_n} & \frac{\partial x_2^B}{\partial p_n} & \dots & \frac{\partial x_n^B}{\partial p_n} \end{bmatrix},$$

### h) Eskariaren propietateak

Kontsumitzailearen eskari-funtzioak ondasun bakoitzaren kantitatearik hoberenak adierazten dizkigu, kontsumitzaileak aurrean dituen prezioen eta errentaren funtzioan. Eskariaren teoria klasikoan oinarrituz,  $x_i = x_i(p_1, p_2, \dots, p_n, I)$  eskari-funtzioak ondorengo **propietateak** (Villar, 1996) dituzte:

- Prezioetan  $(p_1, p_2, \dots, p_n)$  eta errentan,  $I$ , zero graduko homogeneoak dira, hau da,  $x_i(p_1, p_2, \dots, p_n, I) = x_i(\lambda p_1, \lambda p_2, \dots, \lambda p_n, \lambda I)$ ,  $\lambda \in \mathbb{R}_+$
- Errenta osoa kontsumitzen da, hau da,  $\sum_i p_i x_i = I$
- Slutsky terminoetako matrizea, hau da, ordezte efektua biltzen duen prezioarekiko lehen deribatuez osaturiko matrizea simetrikoa da.
- Slutsky terminoetako matrizea erdidefinitu negatiboa da.

### 3. ESTIMAZIO EREDUAK

Eskariaren ekuazio-sistemak estimatzeko metodo ezberdinak erabil daitezke. Alde batetik, teoria mikroekonomikoan oinarrituriko metodoak ditugu. Bestetik, ekonomialari bakoitzak uste duen aldagaiez osaturiko eskari funtzioak eraikitzean datza “*ad-hoc*” forma funtzionalekoak, alegia.

#### 3.1. Teoria mikroekonomikoetan oinarrituriko ekuazio-sistemak

Eredu hauetan aldagai askoz osaturiko forma funtzionalak erabiltzen direnez malgutasun handiagoa ematen da. Orokorrean, ekuazio-sistemak estimatzen dira eta lortutako koefizienteen bidez aurretiaz aipaturiko eskari propietateak kontrasta daitezke. Betetzekotan, eskari ekuazioak baliagarritasun funtzio bat maximizatzen (errenta murriztapena kontuan hartuz) lorturiko emaitza direla frogatzen da.

Eredu ezberdinen artean honako hauek aipa ditzakegu: LES (Linear Expenditure system) (*Klein eta Rubin, 1948 eta Stone, 1954*), AIDS (Almost Ideal Demand System) (*Deaton eta Muelbauer, 1980*), QUAIDS (Quadratic Almost Ideal Demand System) (*Banks, Blundell eta Lewbel, 1997*), ROT (Rotterdam model) (*Barten, 1969 eta Theil, 1965*), besteak beste.

Aurretiaz esan bezala, eredu hauetan eskariaren propietateak (homogeneotasuna, simetria, Slutsky matrizea erdidefinitu negatiboa izatea) betetzen diren jakiteko estimaturiko koefizienteekin zenbait kontraste egin behar dira. Hala ere, LES ereduaren kontraste hau egitea ez da beharrezkoa, propietate hauek ereduaren aurretiazko hipotesiak direlako, beraz bermaturik daude.

#### 3.2. “Ad-hoc” motatako ekuazio-sistemak

Eredu honetan, ikerlari bakoitzak uste dituen aldagaiak barneratzen ditu eskari funtzioan. Gainera, ikerlariak berak, erabakitzen du eskari ekuazioak izango duen forma bere irizpide pertsonalen arabera. Forma funtzional posibleen artean ondorengoak planteatu ditzakegu:

$$q_{ij} = \alpha_{i0} + \sum_{k=1}^n \alpha_{ik} p_{jk} + \alpha_{i1} I_j + \Gamma'_i X_j + \varepsilon_{ij} , \quad (1)$$

( $i=1, \dots, n$ ) ( $j=1, \dots, m$ )

non  $q_{ij}$ ,  $j$  familiak  $i$  ondasunetik eskatutako kantitatea den,  $p_{jk}$   $j$  familiak  $k$  ondasunagatik ordaindutako prezioa den,  $I_j$   $j$  familiaren errenta nominala da, eta  $X_j$   $i$  ondasunaren kontsumoan  $j$  familiari eragin diezaiokkeen beste aldagaien bektorea den.

Ekuazioak endogenoa (edo independentea) den kontsumitutako kantitatea,  $q_{ij}$  aldagaia, zenbait aldagai askerekin (edo azaltzailerekin) erlazionatzen du, adibidez, prezioarekin  $p_{jk}$ , errentarekin  $I_j$  eta eragina izan ditzakeen bestelako aldagaiekin,  $X_j$ . Ekuazioan errorea ere adierazten da,  $\varepsilon_{ij}$  non efektu ez sistematikoak edo erratikoak biltzen diren, hau da, beste erregresoreak jasotzen ez dituzten efektuak, aldagai

aleatorioa izanik. Izan ere, aldagai endogenoaren eta azaltzaileen datuak eskuragarri izango dira, baina errorean behatu ezin diren datuak bilduko dira. Bestetik,  $\alpha$  koefizienteek konstanteak izango dira eta aldagaien arteko erlazioa kuantifikatuko dute, hauek ezezagunak direnez estimatu behar izango dira.

Aurreko ekuazioan ikusten den bezala, ekuazioa linealak izan behar du parametroetan, baina ez du zertan lineala izan behar aldagaietan. Beraz, ondorengo alternatiba ere planteatu daiteke :

$$\ln q_{ij} = \beta_{i0} + \sum_{k=1}^n \beta_{ik} \ln p_{jk} + \beta_{i1} \ln I_j + \Omega_i' X_j + \epsilon_{ij}, \quad (2)$$

( $i=1, \dots, n$ ) ( $j=1, \dots, m$ )

non  $\beta$  koefizienteak zuzenean prezioa eta errentarekiko elastikotasunaren adierazle izango dira.

Erregresioa metodo ezberdinen bidez parametroak edo koefizienteak estimatuko dira eta ondoren koefiziente horiek kontrastatuko dira aldagai ezberdinen esangura maila ezagutzeko. Horrela, esanguratsuak ez diren aldagai azaltzaileak baztertuko dira eta aldagai esanguratsuez osaturiko eskari funtzioa lortu ahal izango da.

Ondasun bat baino gehiagoren eskaria estimatu nahi denean ekuazio sistemak eraikitzen dira. Ekuazio sistema horiek, independenteak, erlazioekin edo itxuraz erlazorik gabekoak baina beraien perturbazioak korrelazioekin izatea gerta daiteke. Azken hauei, SUR (Seemingly Unrelated Regressions) (*Zellner, 1962*) ekuazio-sistema bezala ezagutzen zaie. Ekuazio sistemak estimatzerako orduan, batera edo banan-banan estimatzea erabaki behar da. Orokorrean, ekuazioa guztiak batera estimatzen dira efizientzia hobetzen delako. Hala ere, ekuazioak independenteak badira, edo ekuazioek erregresore berdinak badituzte, emaitza berdinak lortzen dira ekuazioak batera estimatuz edo banan-banan eginez (*Wooldridge, 2010*). Behin ekuazio sistema batera edo ekuazioa bakoitza banan-banan estimatuko dela erabakita, estimazio metodoa hautatu beharko da ekuazioa sistemaren arabera. Metodoen artean ondorengoak izan ditzakegu: Karratu Txikiarren Arrunten (KTA) eredua, Karratu Txikiarren Orokorren (KTO) eredua, Ponderatutako Karratu Txikiarren (PKT) eredua, Egiantza Handiko eredua...

## 4. DATUEN DESKRIBAPENA

Lan honetarako INE-n eskuragarri dagoen azken “Familien Aurrekontu Inkesta”-ko datuak erabiliko dira, 2012koak hain zuzen. Inkesta honek, Espainiako familien kontsumo gastuaren informazioa emateaz gain, familiako kide ezberdinen ezaugarri pertsonal, sozial nahiz ekonomikoei buruzko informazioa ematen digu. Bertan, Autonomia Erkidego eta Udalerri ezberdinen tamainaren arabera datuen lagin adierazgarria biltzen da. Informazioa, familiei egindako inkesta eta elkarrizketa pertsonalen bitartez lortu da. Izan ere, inkestak aldaketa metodologikoak izan ditu 2006tik. Horien artean, orain periodikotasuna urtekoa da, 1997an oinarritutakoa aldiz hiruhilekoa zen. Laginaren tamainari dagokionez ere, hazkunde nabarmena izan du, lehen, urtero 11.000 familia inguru aztertzen baziren, orain 24.000 ingururaino heldu da. Ildo beretik, familiaren hautapena aleatorioa da eta horietako bakoitzak bi urtez parte hartzen du laginean, horrez gain urtero laginaren erdia berritzen da. Gainera, kontuan hartu behar da *ikerketa aldia* eta *behaketa aldia* ez direla berdinak. Kasu honetan, ikerketa-aldi bezala urtea hartu da, baina behaketa epeak ezberdinak izango dira ondasunaren edo zerbitzuaren kontsumo edota kostuaren arabera

Inkestan aztertzen diren ondasun eta zerbitzuak 12 talde handitan banatzen dira. Horien artean frutak lehen taldearen barruan daude, elikagai eta edari ez alkoholikoetan, alegia. Talde honen datuak bi astetan batu dira familia ezberdinei inkestak eginez. Ondoren, fruta mota ezberdinak ere ezaugarrien arabera hamar familiatan sailkatzen dira hurrengoko TAULA 1-an ikusi daitekeen bezala:

**-TAULA 1- : FRUTEN FAMILIA SAILKAPENA**

FRUTAK	
<b>1: Zitrikoak</b>	Laranja, mandarina, klementinak, limoia, arabisagarra, lima...
<b>2: Platanoak</b>	Freskoak, hozkailuan gordetakoak, izozkailuan gordetakoak
<b>3: Sagarrak</b>	Freskoak, hozkailuan gordetakoak, izozkailuan gordetakoak
<b>4: Madariak</b>	Freskoak, hozkailuan gordetakoak, izozkailuan gordetakoak
<b>5: Hezur frutak</b>	Melokotoia, okarana, nektarina, paraguaioa, mizpira, ahukatea, mangoa, gereziak, kakiak..
<b>6: Olibak</b>	Oliba mota guztiak, hezurrekin edo hezur gabekoak, beteak ala ez
<b>7: Baiak</b>	Marrubiak, franbuesa, mora, groseilak, mahatsa, ahabiak, basaranak
<b>8: Bestelakoak</b>	Meloia, sandia, fruta tropikalak, kiwiak, menbriloa, anana,

<b>9: Fruitu lehorrak</b>	Fruta oskolak, hezurak, intxaurreak, almendrak, kakahueteak, pipak, gaztainak... (ez dira barneratzen fruitu melatuak)
<b>10: Fruta prestatuak eta kontserban</b>	Kontserba naturalak eta almibarrean kontserbatutakoak (ez dira barneratzen marmelada, konpota, purea, ziropea eta zukuak)

Estimatuko den funtzioa Espainiako fruten kontsumoaren isla izango da, ondoren azaltzen diren aldagaien bidez definiturik egongo delarik:

$$Q_i = f(P_i, CCAA_i, CAPROV_i, FACTOR_i, NIEM7_i, NIEM8_i, NIEM9_i, NIEM10_i, NIEM11_i, NIEM12_i, NIEM13_i, EDADSP_i, NACIONASO_i, ESTUDIODREDSO_i, IMPEXAC_i),$$

$i=,1,2,3,4,5,6,7,8,10$  (fruta familia bakoitza)

**Menpeko aldagaia** ( $Q_i$ ), 2012an Espainian eskatutako fruta kantitatea da. Datuetan ikusi daitekeen bezala, gehien eskatu den fruta familia 1-familiakoak izan dira, zitrikoen familia, alegia. Izan ere zitrikoak, batezbestekoz frute ezberdinen artean %29,66an kontsumitu dira Grafikoa 2 -n ikusi daitekeen bezala. Hala ere, zitrikoen eskariaren aldakuntza koefiziente (1,56) nahiko handia da, beraz, familia multzo batek zitriko asko kontsumitzen ditu, baina beste multzo batek oso gutxi. Gutxien kontsumitu den fruta (%1,10) berriz, 10 familiakoak izan dira, hau da, fruta prestatuak eta kontserban mantendutakoak. Kasu honetan, aldakuntza koefizientea (4,76) handia da, beraz batezbestekoaren adierazgarritasun maila txikia da.

**Aldagai azaltzaileen** artean fruten eskarian eragina izan dezaketeen ondorengoak probatuko dira:

Prezioa,  $P_i$ , 2012an fruta familia ezberdinek izan duten prezioa da. Datuei erreparaturaz, batez besteko fruta merkeena (1,32€) zitrikoak izan dira, gehien kontsumitu direnak Grafikoa 4-n ikusi daitekeen bezala. Gainera, zitrikoen prezioaren aldakuntza koefizientea (0,86) txikiena da. Bestetik, batez bestez garestiena (11,29€) fruitu lehorrak izan dira, hauen eskaria (%3,38) baxuenetarikoa izan delarik. Gainera, fruitu honek izan duen prezio maximoa ere handiena izan da (856,69€).

Inkesta Espainiako familia ezberdinei 2012an egin zaie. Espainiako Autonomia Erkidegoko ( $CCAA_i$ ) familia ezberdinak erabili dira lagin gisa eta beraien bizilekua probintziaren kapitala ( $CAPROV_i$ ) izan den edo ez kontuan hartu da ikerketarako. Gainera, familien nazionalitatea ( $NACIONASO_i$ ) ere kontutan hartu da, espainiarra edota atzeritarra den bereiztu delarik.


$FACTOR_i$  errepresentaturiko biztanleriari dagokio. Inkesta 21.808 familie egin zaie, baina ezaugarri berdinak dituzten familiak aurki ditzakegunez, egindako inkestak 18.095.209 familiei errepresentatzen die, Espainiako familia kopuruari hurbiltzen delarik.


Familiak osatzen duten kide kopuruei dagokienez (**NIEM<sub>i</sub>**), adinararen arabera zazpi multzo banandu dira. Batez bestez kide gutxien duen azpitaldea 85 urte baino gehiago duten pertsoneri dagokie. Bestetik, kide gehien duen azpitaldea 35-64 urte bitartean duten indibiduoak izan dira.

Inkesta egin zaien familien kideburuaren batezbesteko adina (**EDADSP<sub>i</sub>**), 52 urtekoa izan da. Kontuan hartu behar da inkesta egin zaien pertsoneri 18 eta 85 urte bitartekoak izan direla.

Familia bakoitzak izan duen hileroko errenta garbia (**IMPEXAC<sub>i</sub>**), batezbestez 1851,044€koa izan da, errenta maximoa 17.200€ gainditu dituelarik eta minimoa 0€ izatera ailegatu delarik. Honekin loturik, familiek frutetara kontsumitu duten urteko gastua (**GASTO**) batez bestez 478,05€-koa izan da, zitrikoen (%17,37) eta bestelakoetarako (%17,38) bideratu delarik gastu gehiena Grafikoa 3-n ikusi daitekeen bezala.

Azkenik, familiako kide nagusiaren ikasketa maila (**ESTUDIOSREDSPI**) ere kontuan hartu da, lau ikasketa maila bereiztuz; ikasketa gabekoa edo lehen gradukoa, bigarren hezkuntzako lehen ziklo, bigarren hezkuntzako bigarren zikloa eta goi-hezkuntza mailakoak.





Jarraian aldagaien azalpen deskriptiboa (Taula 2) eta estatistiko deskribatzaileak azaltzen dira (Taula 3):

**-TAULA 2-: EREDUAREN ALDAGAIEN LABURPENA**

ALDAGAIK	DESKRIPZIOA	BALIOAK
<b>ANOENC</b>	Inkestaren urtea	2012
<b>NUMERO</b>	Familiaren txosten zenbakia	00001-25000
<b>CCAA</b>	Bizileku Autonomia Erkidegoa	1: Andaluzia 2: Aragoi 3: Asturias 4: Balear Uharteak 5: Kanariar Uharteak 6: Kantabria 7: Gaztela eta Leon 8: Gaztela-Mantxa 9: Katalunia 10: Valentzia 11: Extremadura 12: Galizia 13: Madril 14: Murtzia 15: Nafarroa 16: Euskal Herria 17: Errioxa 18: Ceuta 19: Melilla
<b>CAPROV</b>	Probintziaren kapitala	1: Bai bada 0: Ez bada
<b>FACTOR</b>	Errepresentaturiko biztanleria	>0



<b>NIEM7</b>	Familian pertsona kopurua 0-4 urte	0-19
<b>NIEM8</b>	Familian pertsona kopurua 5-15 urte	0-19
<b>NIEM9</b>	Familian pertsona kopurua 16-24 urte	0-20
<b>NIEM10</b>	Familian pertsona kopurua 25-34 urte	0-20
<b>NIEM11</b>	Familian pertsona kopurua 35-64 urte	0-20
<b>NIEM12</b>	Familian pertsona kopurua 65-84 urte	0-20
<b>NIEM13</b>	Familian pertsona kopurua $\geq 85$ urte	0-20
<b>EDADSP</b>	Sostengatzaile nagusiaren adina (Familia txostena egin denetik)	85: $\geq 85$ 16-84: Bestelakoak
<b>NACIONASP</b>	Nazionalitatea	1: Espainiarra 2: Atzerritarra 3: Espainiarra eta atzerritarra -9: Ez dago daturik
<b>ESTUDIOSREDSP</b>	Sostengatzaile nagusiaren ikasketa maila	1: Ikasketa gabekoa edo lehen gradukoa 2: Bigarren hezkuntza (lehen zikloa) 3: Bigarren hezkuntza (bigarren zikloa) 4: Goi-hezkuntza
<b>IMPEXAC</b>	Guztira hileko diru-sarrera garbiak	0-99999
<b>P<sub>1-10</sub></b>	prezioa fruta-familien arabera	>0
<b>Q<sub>1-10</sub></b>	Erositako kantitatea fruta-familien arabera	$\geq 0$

*Iturria: INE (2012)*

**-TAULA 3-: ESTATISTIKO DESKRIBATZAILE HAZTATUAK**

ALDAGAIK	BATAZBESTEKOAK	DESB. TIPIKOA	MIN	MAX	ALDAK. KOEF.
NIEM7	0,14	0,40	0,00	4,00	2,92
NIEM8	0,26	0,58	0,00	7,00	2,26
NIEM9	0,26	0,56	0,00	5,00	2,20
NIEM10	0,37	0,65	0,00	6,00	1,76
NIEM11	1,11	0,86	0,00	5,00	0,78
NIEM12	0,39	0,67	0,00	4,00	1,74
NIEM13	0,05	0,23	0,00	3,00	4,80
EDADSP	52,95	16,17	18,00	85,00	0,31
IMPEXAC	1851,04	1207,18	0,00	17200,00	0,65
P <sub>1</sub>	1,32	1,13	0,21	57,53	0,86
P <sub>2</sub>	1,77	2,80	0,23	324,68	1,58
P <sub>3</sub>	1,71	2,70	0,30	202,28	1,58
P <sub>4</sub>	1,85	3,00	0,18	169,36	1,63
P <sub>5</sub>	2,64	4,11	0,36	144,53	1,55
P <sub>6</sub>	6,39	9,08	0,19	413,91	1,42
P <sub>7</sub>	3,18	4,40	0,25	270,52	1,38
P <sub>8</sub>	1,87	3,08	0,17	320,63	1,65
P <sub>9</sub>	11,29	18,30	0,60	856,69	1,62
P <sub>10</sub>	4,11	4,54	0,53	277,60	1,11
Q <sub>1</sub>	63,08	98,41	0	1806,34	1,56
Q <sub>2</sub>	24,79	32,67	0	552,71	1,32
Q <sub>3</sub>	24,12	44,39	0	1564,28	1,84
Q <sub>4</sub>	12,23	25,06	0	659,61	2,05
Q <sub>5</sub>	20,64	45,38	0	823,86	2,20
Q <sub>6</sub>	4,65	67,05	0	11294,23	14,43
Q <sub>7</sub>	9,18	91,41	0	13035,70	9,96
Q <sub>8</sub>	44,46	91,09	0	2098,75	2,05
Q <sub>9</sub>	7,20	24,43	0	2216,07	3,40
Q <sub>10</sub>	2,33	11,10	0	644,06	4,76

*Iturria: Elaborazio propioa*

## 5. ESTIMAZIOEN EMAITZAK

Atal honetan estimatutako ereduen emaitzak aurkezten dira. Aurretiaz azaldu bezala, bi forma funtzional estimatu dira, batetik eredu lineala eta bestetik logaritmikoa. Fruta mota bakoitzerako ekuazio bat estimatu da, horrela hamar ekuazioz osaturiko ekuazio sistema lortu da.

Fruten eskariaren ekuazio sistema estimatzeko, Familien Aurrekontu Inkestatik ustez garrantzitsuak izan diren aldagaiak aukeratu dira. Ekuazio sistemako ekuazio bakoitza banan-banan estimatu da, kasu honetan fruta mota bakoitzaren eskariaren erregresoreak berdinak direlako. Estimazioak egiteko *Ponderatutako Karratu Txiki*en metodoa erabili da, eskuragarri izan dugun FACTOR aldagaiagatik haztatu delarik. Gainera desbideratze tipiko sendoak erabili dira heterozedastizitatea eta balore atipikoak ekiditeko. Egindako estimazioen emaitza zehatzak eranskinen E1-E10 Tauletan ikusi daitezke.

Planteaturiko bi forma funtzionaletan bi arazo nagusi suertatu dira. Alde batetik, fruta familia batzuen kontsumoa nulua da hainbat familientzako, beraz eredu logaritmikoa planteatzean arazoak sortzen dira. Hau konpontzeko, nulua izan diren kontsumoak zenbaki oso txiki batengatik (minimoen %5<sup>1</sup>) ordezkatu dira, erregresioan eragin handia sortu ez dutelarik.

Bestetik, inkestan erabilgarri izan dugun IMPEXAC aldagaia, non familia bakoitzak izan duen hileroko errenta garbia dagokion, kasu gehienetan ez da aldagaia esanguratsua izan. Horrela, errenta adierazten duen aldagairen bat beharrezkoa dela uste denez, GASTO ( $\sum_{i=1}^{i=10} x_i p_i$  non  $x_i$  fruta mota bakoitza den) aldagaiagatik ordeztu da, non frutan gastatu dena adierazten duen. Ordezkapen honek teoria ekonomikoarekin koherentzia mantentzen du, gogoeta hau “*Aurrekontua bi etapetan*” (Nicholson, 2004) bezala ezagutzen delarik. Teoria honen arabera, kontsumitzaileek bi pausutan hartzen dituzte erosketak erabakiak. Lehen pausu batean, kontsumitzaileak, gastu totala ondasun multzo ezberdinetara (frutak, okelak, edariak...adibidez) esleitzen dute. Ondoren, bigarren pauso batean ondasun multzoan baneratzaren ondoren ondasun ezberdinen artean (fruten barruan, sagarrak, platanoa, zitrikoak...adibidez) aukeratzen dute. Formalki horrela planteatu daiteke:

$$1. \text{ Pausua: } \quad \text{Max } U(X_1, X_2, \dots, X_n),$$

$$\mathbb{P}_1 X_1 + \mathbb{P}_2 X_2 + \dots + \mathbb{P}_n X_n = I \text{ baitan,}$$

non  $\mathbb{P}_i$   $i$  ondasun multzoarentzako prezio bektorea den,  $X_i$   $i$  ondasun multzoarentzako eskatutako kantitatea den, eta  $I$  ondasun multzo guztien gastu totala den.

Hemendik ondasun multzo bakoitzarentzako zein den gastu optimoa ( $I$ ) jakin daiteke:

$$I_1 + I_2 + \dots + I_n = I,$$

---

<sup>1</sup> Kontsumo ez nuluen minimoak kalkulatu dira eta ondoren minimoen %5 aplikatzea erabaki da, ordezte honek emaitzak ez dituela aldatzen uste delako.

2. Pausua:  $\text{Max } U_i (X_i),$

$\mathbb{P}_i X_i = I_i$  baitan,


Ondasun multzo baten barnean dauden i-ondasunen eskaria lortzen da:

$$\begin{pmatrix} X_i^1(\mathbb{P}_i, I_i) \\ X_i^2(\mathbb{P}_i, I_i) \\ \vdots \\ X_i^m(\mathbb{P}_i, I_i) \end{pmatrix},$$

non  $I_i$  i-ondasunaren gastua den.

Hainbat ekonomialariek egindako eskari estimazioetan aurkitu ditzakegu kontzeptu hau. Adibidez: *Molina (1997)* artikuluan, bost ondasunentzako (Tabakoa, Arropak eta oinetakoak, etxea eta garraiobidea) kontsumoa kontsideratzen da lehenik, eta ondoren, garraiobideen barruan hiru ondasunak (ibilgailu pertsonalen erosketa, ibilgailu pertsonalen mantentzea eta garraiobide publikoa). Bestetik, *Gil eta Molina (2009)* artikuluan ere, lehendabizi alkoholdun edariak eta bestelako ondasunen kontsumoa kontuan hartzen da, eta ondoren, alkoholdun edarien barruan ardoa, garagardoa eta espiritu edariak.

Gure kasu partikularrerako, lehen etapa batean familia bakoitzak fruten, beste elikagaien eta beste ondasun eta zerbitzuen artean zer kontsumitu erabakitzen du, eta bigarren etapan fruten kasurako zein fruta mota (zitrikoa, platanook, olibak..) kontsumitu erabakitzen du. Grafikoki honela adieraz daiteke:



### 5.1. Estimaturiko eredu lineala (1 eredu)

Estimaturiko bi ereduetarako aldagaien esangura maila aztertuko da jarraian. (1) ekuazioaren arabera ondorengo taulan (TAULA 4) fruta mota bakoitzerako aldagaien esanguratsuen kontrasteen azterketa ikusi daiteke.

<sup>2</sup> Beste elikagaien barruan 12 ondasun talde aurkitzen dira: Elikagaiak eta edari ez alkoholikoak; edari alkoholikoak, tabakoa eta narkotikoak; arropak; etxebizitza, ura, elektrizitatea; altzariak eta etxerako ekipamenduak; osasuna; garraioa; komunikazioa; kultura eta aisialdia; hezkuntza; ostalaritza eta bestelakoak.

TAULA 4 –n ikusi daitekeen bezala aldagai guztiak ez dira esanguratsuak fruta mota guztietarako baina batera esanguratsuak dira %5eko esangura mailarako (Ikusi Eranskineko Taulak E1-E11). **Prezioen** eragina aztertuz, zitrikoen prezioak ( $P_1$ ) fruta gehienetan eragin esanguratsua du, hauek gehien kontsumitzen direnak izanik, beraz, zitrikoen prezioen aldakuntzak beste fruten kontsumoen faktore garrantzitsua da. Eragin hau negatiboa da kasu gehienetan, hezurdun frutetan (5.taldea) eta bestelakoetan (8.taldea) izan ezik, beraz, zitrikoen eta bestelako ondasunen erlazioa osagarria da aipatutako bi kasu partikularretarako izan ezik, hauetarako ordezkagarria baita. Beste alde batetik, eragin gutxien duten prezioak fruta prestatuak eta kontserban mantendutakoena ( $P_{10}$ ), platanoen ( $P_2$ ) eta olibena ( $P_6$ ) dira, non bakarrik dute eragina bere jatorriko frutetan.

Zitrikoak gehien kontsumitzen diren fruta mota izanik, bere portaeran zentratuko gara batez ere aldagaien esangura mailak aztertzerakoan. **Gastu** aldagaia kontuan hartuta, estimazioetan emaitza hobekoak lortu dira ( $R^2$  handiagoak) eta aldagai hau guztiz nabaria izatea lortu da ere fruta mota guztietarako. Bere eragina positiboa da, hau da, gastua gero eta handiagoa bada frutaren kontsumoa handiagoa baita. Gainera eragin hau, handiagoa da zitrikoen kasurako; gastua euro batean handitzean zitrikoen eskaria batez bestez 0,098 unitatetan aldatzen dela estimatzen da.

Familiak bizi diren **Autonomia Erkidegoak** eragina du fruta guztien kontsumo erabakian. Eragin hau ezberdina da fruta mota bakoitzean eta Autonomia Erkidego bakoitzerako, baina orokorrean kontuan hartu beharreko aldagai dela esan daiteke. Honekin loturan, familien bizilekua **probintziaren kapitala** izateak edo ez eragina ere badu kasu gehienetarako. Izan ere, kapitalean bizi ez direnen kasuan eskaria handiagoa da fruta mota gehienetarako, platanoen, madarien eta hezurdun fruten kasuetarako izan ezik.

**TAULA 4: Aldagai esanguratsuen kontrasteak 1 EREDUA**

ALDAGAIK	Q1	Q2	Q3	Q4	Q5	Q6	Q7	Q8	Q9	Q10
P1										
P2										
P3										
P4										
